PDF irisgarria
Irakurketa Errazean

Etxarri-Bidaurreta Estela

Etxarri-Bidaurreta Estela
Etxauriko Haranean dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Etxauriko Harana non dagoen ikus dezakezu.

1937ko urtarrilaren 8an frankistek
Etxarriko hilerritik gertu
Manuel Tapiz hil zuten.
Manuel Miranda Argako nekazari,
zinegotzi eta alkatea izan zen.
Manuelek herriko lurrak
herriko nekazarienak izateko borrokatu zuen.

1978. urtean bere familiak
desobiratze goiztiar bat egin zuen
Manuelen gorpuzkiak berreskuratzeko.

Bestalde, 1937ko maiatzaren 14ean
frankistek Bidaurretako Pontarrón lursailaren inguruan
Fiteroko beste 9 bizilagun hil zituzten.

Hilketa hauek
Iruñeko Espetxe Probintzialeko
ateratze berantiarretako batean egin zuten.
Espetxe Probintziala
Iruñean zegoen kartzela zen.

Bidaurretan egin zituzten desobiratze goiztiarretan
zenbait pertsonen gorpuzkiak aurkitu zituzten.
Baina ondoren egin ziren desobiratzeetan
ez ziren gorpuzki gehiagorik aurkitu.

2020. urtean
Etxarri eta Bidaurretako Udalek
hobi hauetan monolitoak jarri zituzten.

Hemen hilarriaren argazki bat ikus dezakezu:



Hemen Manuel Tapiz eta bere emaztearen
argazki bat ikus dezakezu.

